

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 6a / 660. zenbakia



UTILLAJES URIBESALGO

ARRASATEKO LANTEGIAREN ETORKIZUNA KOLOKAN

ORAIN ETA HEMEN: IBAI ARTE-REN IDATZIA/6 • KIROLA: MONDRAK BOST FINAL DITU JOKATZEKO/10

ARGAZKIA: UBANE MADERA

GREMIOEN GIDA/24

EKITALDIA
uarkape
FRONTOIAN

Otsailak 8
Igandea
18:30ean

euskal herria

AITORTU ★ ERRESPETATU

SARRERA
DOAN

Aste bukaerako
plana zabal-zabalik

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili




KALEINKESTA/ Soziedade batzutan emakumiei ez dutzie ixten bazkide izeten? Ze pentsetan jatzu?



ROMAN KORTABARRIA
Langabie



ARANTZA BALZATEGI
Langillie



GORKA ALZA
Langillie



MARI LUZ QUINTANAS
Langillie



JOAQUIN FERREIRA
Langillie



JUAN JOSE SAENZ
Langillie

Oso txarto pentsetan jat. Emakumiek gizonen esku-bide iguelak euki biher daue. Emakumiek soziedadietara sartzen ez ixtie aspaldikue da, eta horrekin apurtu egin biher da.

Alde batetik, oso txarto pentsetan jat, lotsagarrixe da. Baiñe, alde ona ikustiarren, soziedadietara jueten naze-nien, ez dot ezer egitten ezkaratzien; gizonek egin daixela lan.


Emakumiek sozio egitten ez ixteko ohitura horri ez dutzet ez hanka ez buru ikusten. Hori aldatu egin biherko leukie. Ordue da danok eskubide iguelak eukitteko.

Txarto pentsetan jat. Emakumiok soziedadietara sartzeko aukerie eukitten dogu, baiñe justo-justo. Holakuek ikusitte, argi dau oingo gizartie ondiokan be matxistie dala.

Oso txarto pentsetan jat, emakumiek gizonen esku-bide iguelak euki biherko leukielako. Aspaldiko beste ohitura batzuk aldatu badittue, beste hori zergaittik ez daue aldaketan?

Emakumiek, beste edozei-ñek moduen, sozio egitteko eskubidie euki biherko leukie. Hala be, poliki-poliki soziedade batzutan ohitura hori aldatu daue, eta bazan ordue!

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK LABAINKORTASUNA EKIDIN Zerrajerako etxeetara joateko egin zuten zubian aldaketa txiki baina nabarmen bat egin dute. Ingurune hartan bizi direnek diotenez, hotz handia egiten duenean zubi hori labainkor egoten da. Horregatik, Udalak zubian labainkortasuna ekiditeko zinta ipini du. Auzotar baten esanetan, zinta horri esker arazoa konpondu egin dute.

ETABARRUAN...

KIROLA /11

KULTURA /14

ZAHARRAK /17

Ointxek lautik lau irabazi

Ointxe Arrasate Saskibaloi Taldeak jaitsiera fasean jokatuak lau partidua irabazi ditu.

Zahar Berriren kanpaina

Zahar Berri elkarteak euskaldun zaharrek dituzten ohiturak aldatzeko kanpaina abiarazi du.

Interneten ibiltzea

Geroago eta edadetu gehiago ibiltzen dira ordenagailuekin eta Interneten, gure inguruan.

ASTEKO DATUA

25

TXAKUR JASO ZITUZTEN KALEAN 2003AN

Udalak emandako datuen arabera, 2003an, hogeita bost txakur jaso zituzten kalean. Udaleko zerbitzuak kalean jasotzen dituen txakurrak Bergarako txakurte-gira eramaten ditu.

BESTE EKESANA

Zuregana nator; Enriqueta maitia, gure etxean, Araba lurraldean, Espainia-ko batasun sakrosantuenen ikur zarelako (...). Araba, euskararen erabileraren arabera zatitu behar duzue, Aramaio bailarako bi baserri gune euskaldun izendatuz, Gasteizko Kutxi kaleko lehen zatia elebiduna eta Arabako beste eremu guztiak espainolak. Euskara eskaintzen duten eskola zein euskaltegiei oraindik ematen zaizen subentzio hondarrak, erabat desagertarazi. Soberan geratuko den dirua Fundación Francisco Francori bideratu, premia handia baitute. Olentzero, Santageda eta Santo Tomas jaiak debekatu (...). Edonola ere, ez zalantzarik izan, zure adimen paregabean (...) konfiantza oso dugula...

IÑAKI BEREZIBAR
'BERRIA'/04-01-25

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Erretiroa

Orain arte ez dut erretiroari buruz asko pentsatu. Aukera hau inguruko egoerari esker etorri zait. Aurreko astean lau lankideren erretiroa ospatu genuen eta laster nire senide bati ere helduko zaio une hori.

Egia da gazte naizen momentutik, agian lanez gainezka nagoelako edo, une desiragarri bat bezala ikusten dudala lana uzteko momentua. Eta urte askotan lanean egon denari ongi etorriko zaizkio edukiko dituen lasaitasun egunak.

Arazoak ere egongo dira agian, osasuna, dirua, bakardadea, aspertzak... Horrelako aldaketa handi batek berrantolatatu beharreko aspektu asko ekarriko ditu. Hori lortu bitartean aldaketa gogorra izan daiteke.

Baina oso garbi dudana gauza bat da erretiroa hartzen duten guztiak gure esker onik handiena merezi dutela. Urte askotan (emakumeak batik bat) lante-

gian lanean, etxea eramaten, semeak hazten ahalegin handiak egin dituzte. Urte asko izan dira, eta lan horren emaitzak jadanik jaso ditugu, bai seme bezala, bai senar-emazte bezala eta azkenik lankide bezala ere bai. Eta urte askotan jarraituko dugu jende askok aurretik

“Lana gogoz egiteaz gain, laguntasuna eta umore ona landu egin dituzte. Merezitako omenaldia hartu dute”

egindako lanaren fruituak jasotzen (orain daukagun guztia norbaitek egin dela ezin dugu ahaztu). Bahoakie ere nire eskerrona erretirora heldu ez direnei ere bai.

Egia da gainera, egindako lanagatik askotan sari gutxi

jasotzen dutela. Lanean egiten zaien agurra omenalditxo bat bezala hartzen dut. Merezitako omenaldia. Lana gogoz egiteaz aparte, adiskidetasuna eta umore ona landu egin dituzte-eta. Alboan izan dituztenen bihotzean hutsune bat utzita erretiroa hartzen dutelako.

Mila esker zuen lanagatik, zuen dedikazioagatik, zuen izaeragatik eta zuek utzitako munduagatik. Disfrutatu zuen garai berri hau.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubané Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiniano
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 6**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ZAPATUA, 7**
Ruiz. Maala 31..... 943 79 14 09
- DOMEKA, 8**
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 9**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- MARTITZENA, 10**
Azkoaga. Iturriotz 17..... 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 11**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 . . . 943 79 22 26
- EGUENA, 12**
Irizar. Erguin 11..... 943 79 12 39
- EGUBAKOITZA, 13**
Amezua. Santamaina 32 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igoalatoríoa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINNTZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

UDALPE ELKARTEA
Domekan, otsailaren 8an, Udalpe elkarteko bazkideek meza izango dute San Juan Bautista elizan, 11:00etan. Eguaztenean, hilaren 11n, batzar orokorra egingo dute, 18:30ean.

GESALIBARKO JAIAK
Gaur, egubakoitza, bertso afaria egingo dute, Joxe Lizaso eta Andoni Egañarekin, Jentiolan, 20:30ean. Bihar, zapatua, umeendako jolasak eta tailerrak egongo dira, 11:00etan; 12:00etan, meza egingo dute. Egunean, etxez etxe koplak abestuko dituzte. Gauean, Jentiolan afaria egingo dute. Horren ostean, erromeria Txinparta taldearekin. Eta 00:00etan, rock kontzertua egingo dute. Etzi, domeka, meza egingo dute, abesbatzak lagunduta; eta horren ostean, luntxa Jentiolan.

BETIZUREN IKUSKIZUNA
Bihar, zapatua, Betizu Klubak ikuskizuna eskainiko du, 17:30ean, Uarkape pilotalekuan. 16:00etan hasiko dira sarrerak saltzen.

ORKESTRA SINFONIKOA
Bihar, zapatua, Musikene Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
AED elkarteak antolatzen dituen Arrasate Lehiaketek 17. aldia dute. Eta lanak aurkezteko azkenengo eguna da otsailaren 9a (astelehena). Hainbat sail daude: ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia eta euskalki-grabazioa, hain zuzen ere. Interesatuok bidali zuen lanak honako helbidera: AED. Pablo Uranga 4.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Ganbera musikako taldea osatu zuten

Ganbera musikako taldea, hari-instrumentuei dagokienez, bost biolinek, bost biolak, bost txelok eta bost kontrabaxuk osatzen zuten; eta haize-instrumentuei dagokienez, berriz, bi flautak, bi oboek, fagot batek eta klabe batek. Taldearen estreinaldia Urretxun egin zuten, 1993ko abenduan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


“Mototxa.”



Ille mototxa.
—Pelukerixan mototxa rubixo bat ipiñi dotse.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Gesalibarko Mikelete etxea

Diputazioak enkantean jarri duela eta, astean albiste izan da Gesalibarko Mikelete etxea. Historia ezagutzeko, Antxon Garaterengana jo dugu, Mikelete etxean bizi izan baitzen. Solasaldia zapatu eta domekan eskainiko dugu, baita Ibon Antero Mundukideko kidearekin izandakoa ere. Ekuadorren lanean izan da urtebetez, eta esperientzia hori kontatu digu. Amaia Diaz de Monasterioren dietistak aurretik prestatutako jakien gainean berba egingo digu.

Ezkontzen gainean kontu kontari

Eusebio Iñarrak eta Espe Lizarralde ezkontzen gainean egingo dute berba egunean, 11:00etan. Orain dela urte batzuk ezkontzak zelan ospatzen zituzten eta zein ohitura izaten ziren kontatuko digute bi arrasatearrek. Diotenez, ezkontzek oihartzun handia zuten, eta lagun askok ezkontzak ikustera joateko ohitura zuten. Martitzenean, berriz, abokatuaren txanda izango da. Leire Okarantza abokatuak hainbat aholku emango ditu.

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 30	0 °C
MAXIMOA Martitzena, 3	22 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	9,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 28	8 °C	2 °C	6,6 l/m²
Eguena, 29	8 °C	1 °C	— l/m²
Egubakoitza, 30	12 °C	0 °C	0,3 l/m²
Zapatua, 31	15 °C	5 °C	2,3 l/m²
Domeka, 1	20 °C	3 °C	— l/m²
Astelehena, 2	20 °C	3 °C	— l/m²
Martitzena, 3	22 °C	2 °C	— l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Uxue Rodriguez, Betizu taldeko kidea; Ibon Antero, Mundukideko kidea; Amaia Diaz de Monasterioren, dietista...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: elemerideak, elkarrizketak, zorion agurak.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**
19:10 Iluntzean: Maite Aristegi
- EGUENA**
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Deba ibaiaren egoeraren gaineko salaketa

Mondragoetar batek Deba ibaiaren egoera salatu du Arrasateko Udalean. Kontua da Zerrajerako etxeen parean Deba ibaiaren bits zuriz beteta egon dela. Salaketa jarri duenaren arabera, lotsagarria da ur zikinak bideratzeko egin diren lanen ondoren eta Deba ibaian aspaldiko partez lehenengo arrainak ikusten hasi garenean horrelakoak gertatzea.

Udaleko zerbitzu teknikoek ezin izan dute kutsadura horren jatorririk atzeman, baina ez da lehenengo aldia, eta badirudi Aretxabaletan edo Eskoriatzan eragindakoa dela.

Atzerrira merkeago deitzeko aukera

Arrasaten bizi diren kanpotarrek aukera dute euren herrietara telefono deliak merkeago egiteko. San Andres auzoan dute aukera hori, bertan dago eta Locutorio Latino delakoa. Eusko Jaurlaritzak proiektu hori martxan jartzeko %50 ordaindu zuen, eta orain euren dagokie negozioa aurrera ateratzea. Horrelako mintzalekuek hitzarmen bereziak izaten dituzte telefonia konpainiekin eta tarifa merkeagoak eskaintzen dituzte. Kanpotarrez gain, hemengoek ere aprobetxatzen dute zerbitzu hori.

Emakume Txokoko ikastaroek, aurrera

Arrasateko Emakume Txokoak otsaileko eskaintza kaleratu berri du. Eskaintza horren barruan ikastaro asko daude. Batzuk udazkenean hasitako ikastaroen jarraipena dira, baina ikastaro gehiago ere antolatu dituzte.

Udazkeneko ikastaroak oso arrakastatsuak izan ziren, eta otsailean abian jarriko dituzten ikastaroekin ere berdin gertatuko dela uste dute Emakume Txokoko arduradunek. 110 emakumek hartu zuten esku udazkeneko ikastaroetan, eta autoestimuko ikastaroa izan zen arrakastatsuenak. Otsailean ere izango da ikastaro hori.



Fermin Muguruzaren kontzertua Musakolan

Joan den egubakoitzean, Gazte Astea hastearekin bat, kontzertua antolatu zuten Musakolako kiroldegian. Iraina, Anger eta Fermin Muguruza Kontrabanda taldeek jo zuten. Ez zuten kiroldegia bete, baina 800 bat lagun inguru batu zituzten, eta giro ona izan zen.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Aste barruan, ekintza gehiago

Lerro hauek irakurri orduko, Gazte Astea bukatuta edo bukatzeaz egongo da. Antolatzaileek, hau da, Arrasateko Gazte Kontseiluak, oraindik ez du balantzerik egiteko astirik izan. Ekitaldiak, behintzat, ugariak izan dira. Horren gainean zerbait kritikatu edo gaineratzearen, esango nuke, ekitaldietako batzuk goizegi egin dituztela;

17:00etan. Ordu horretan, gazte askok ezin izan dute ekitaldietan esku hartu. Antolatzaileek euren arazoak izango dituzte.

Bestalde, ekitaldiak eurak baino garrantzitsua da hainbat arlotan lan egiten duten gazteak harremanetan jartzea eta horiek elkarlanean gauzak antolatzeari. Horrez gain, herriko gazteei (zentzu orokorrean)

astean eta asteburuan zer ikusi eta zer egin eskaini diete, eta hori, Arrasaten ez da gutxi.

Aspaldiko kontua da arlo batzuetan Arrasate hiria den arren, penagarria dela aste barruan hain gauza gutxi egotea. Ikastaroak, gimnasioak eta kiroldegiak badaude, baina hortik kanpo ez da ia ekitaldirik egoten. Ekitaldiak antolatzen dituztenek -pribatu eta publikoek- uste duten baino harrera hobeagoa izango lukete.

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

BALANTZATEGIREN KIOSKOAK GOGOR EUTSI DIO INGURUKO ALDAKETEI

Orain dela gutxi iragarri genizuen Garibai inguruan hainbat aldaketa egingo zituztela. Jakin bada-kizue lur azpiko aparkalekuak eraiki behar dituztela, eta, horren ondorioz, hainbat lan egin beharrean daude. Orain arte inguruetako zuhaitzak moztu dituzte, baita ziburuak ere. Eta aste hone-

tan, Balantzategiren kioskoa lekuz aldatu dute. Hasieran kioskoa altxatu eta kokapen berrira eraman gura zuten. Azkenean, gurpil batzuen gainean eraman behar izan zuten. Badirudi Arrasateko gauza batzuek, behintzat, garai berrietara egokitzen ikasi dutela. Eta ez da gutxi! /I.B.



BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE

Taxi-busaren, hilerriko errausketen eta garabiaren erabilerak gora


U.M.

Taxi-busaren erabilerak, autobus urbanoarenak, garabiarenak eta hilerriarenak gora egin du aurreko datuekin konparatuta. Horrez gainera, herria garbitzeko zerbitzua handitu egin dute. Hala jakinarazi zuten prentsaurrekoan Zerbitzu Saileko ordezkariak.

2003ko datuak esku artean, orain dela bi urtekoekin konparatu dituzte eta, oro har, zerbitzuen erabilerak gora egin duela jakinarazi dute. Zerbitzu Saileko buru Luis Etxeberriarteun zinegotziak eta sail bereko teknikari Moises Altunak emandako datuen arabera, taxi-bus zerbitzuak izan du igoerarik handiena: %36,2. Hala, datuek erakusten dute, adibidez, Arrasatetik Gesalibarrera 5.331 bidaiari ibili direla, eta Gesalibartik Arrasatera, 4.847 bidaiari.

Igoerarik handiena izan duen bigarren zerbitzua hilerriarena da; hain justu, hilerriaren zerbitzuen artean, errausketena igo da gehien: %28,5, gizartean dagoen joerarekin bat eginez. Kasu honetan, gogora ekarri beharra dago aurten zerbitzu horren prezioa igo egin dutela. Hala, arrasatearrek orain arte moduan ordaintzen badute ere (180 euro), kanpotarrendako garestiagoa da: 216 euro.

Garabiari dagokionez, hura ere ez da atzean geratzen, eta



Garabi zerbitzua %5 igo zen iaz, 2002ko datuekin konparatuta.

2002an baino %5 gehiago erabili zen iaz. Guztira, 791 bider erabili zuten garabia; 500 bider ibilgailu txikiak erretiratzeko eta 37 bider 1.000 kilotik gorakoak eramateko. Moises Altunak adierazi zuen moduan, herrian aparkatzeko geroago eta arazo handiagoak daude, eta hori igarri egiten da.

Era berean, jakinarazi zuten lehen beharra zegoenean bakarrik ateratzen zutela garabia, eta orain etengabe dabilela bueltaka.

ANTZERA SAMAR

Zerbitzu Sailek eskaintzen dituen zerbitzuen artean, txakurrak jaso-

tzekoa ere bada. Emandako datuen arabera, 2003an 25 txakur jaso zituzten, 2002aren pareko. Hori bai, esan zuten 2003an hasita, Udalak ahalegin berezia egin duela galdutako txakurrak euren jabeei bueltatzeko edo bestela, txakurrei jabe berria aurkitzeko.

Bestalde, pintadak kentzeko zerbitzua ere ematen du Udalak; kasu horretan, 2003ko gastu totala 41.187,67 eurokoa izan da.

Bukatzeke, jakinarazi zuten herria garbitzeko zerbitzua handitu egin dutela. Besteak beste, auzoak-eta garbitzeko zerbitzu berria izango da, zortzi laguneko.

Autobus urbanoa eta Udal zergak ordaintzeko laguntzak

U.M.

Autobus urbanoa erabiltzeko urtero ematen dituen laguntzak abiarazi ditu Udalak. Besteak beste, haiek eskatzeko baremoak zehaztu dituzte; baita ere Udal tasen ordaintzetan laguntzeko baremoak. Biak hala biak datorren martxoaren 31 baino lehen eskatu behar dira.

Autobus urbanoak urte berrirako prezioak finkatu ostean, orain, Udalak autobus urbanoa erabiltzeko aurten emango dituen laguntzak finkatu ditu. Bi laguntza mota ematen ditu Udalak: lehenengo eta bigarren mailakoak. Hala, lehenengo mailako laguntzari dagokionez, 18 euroko muga zehaztu dute. Horrek esan gura du laguntza mota hori jasotzeko eskubidea duenak hilerro 34 bidaia dohainik egiteko aukera izango duela, aurten 0,53 kostatuko da-eta urbanoaren txartel arrunta.

Eta bigarren mailako laguntza jasotzen duenari 13 bidaia egiteko laguntza emango dio Udalak (7 euro).

Laguntzok eskatzeko epea martxoaren 31n bukatuko da. Horrek esan gura du apirilaren bukaerara arte ezin izango dute-

la onartu onuradunen behin betiko zerrenda. Hala, Gizarte Sustapeneko batzordeari gehiegizkoa iruditzen zaio ordura arte itxaron beharra laguntzak jasotzeko. Hortaz, erabaki dute orain behin-behineko zerrenda onartuko dutela, eta geroago zehaztuko dutela behin betikoa. Behin-behineko zerrenda egiteko irizpidea honakoa izan da: 2003an laguntzak jaso zituztenak, izan diren bajak kenduta.

UDAL TASAK ORDAINTZEKO LAGUNTZAK

Bestalde, Udal zergak ordaintzeko laguntzak eskatzeko baremoak ere zehaztu ditu Tokiko Gobernu Batzarrak. Eskatzailearen lanbide arteko gutxieneko soldata kontuan hartu dute horretarako. Hala, pertsona bakarren kasuetan, 460,50 euro kobratzen duenak %100eko laguntza izango du; 518,06 kobratzen duenak %80koa eta 575,63 kobratzen duenak %60koa. Bi edo hiru laguneko familietan, berriz, 518,06 euro kobratzen badute, %100 kobratuko dute; 575,63 kobratzen duenak %80 eta 633,19 kobratzen duenak %60. Eta hala izango da gainerako guztiekin.

Laguntza horiek eskatzeko epea ere martxoaren 31n bukatuko da.

190 aparkaleku eraikiko dituzte Zerrajeran, behin-behinekoak

U.M.

Biteriko lur azpiko aparkalekua egiten dabiltzan artean, Zerrajeran behin-behineko aparkalekua egokituko dute. Oraingo astean erabaki dute aparkaleku hori aurreikusitakoa baino handiagoa egitea; horren arabera, guztira, 186 leku izango ditu.

Hasierako proiektuan baino 17 aparkaleku gehiago eraikiko dituzte Zerrajeran: guztira, 186; horietatik 181 aparkaleku arruntak izango dira, eta bost arazoak dituztenendakoak. Guztira 1.250 m²-tan egingo dute lan; horietatik 400 m² izango dira aparkalekuetarako. Guztiak baterian egongo dira.

Horrez gainera, erabaki dute errepide nagusitik ez ezik, ibilgailuek Zerrajera kaletik ere izango dutela hara sartzea; eta aparkalekurako oinezkoendako sARBIDE OSAGARRIA egiteko asmoa ere badutela.

ERLOJUAREN ERAIKINA

Bestalde, eta erlojuaren eraikinarekin lotuta, Tokiko Gobernu




Erlojuaren eraikinaren atzeko sarrera itxi egingo dute, hesi batekin.

Batzarrak erabaki du itxi egin behar dutela eraikin hartara dagoen atzeko sarrera, Zerrajerakoa, hain zuzen. Kontua da azkenaldian kexak jaso dituztela, gauez-eta jendea ibiltzen delako han, inguru guztia zikin-zikin utzita. Hala, aurreko aldean dagoen moduan, seguru aski atzeko

aldean ere hesia ipiniko dute. Gero, asmoa da hesia gauez bakarrik egotea itxita.

Aldaketak horiek guztiak kontuan hartuta, lan guztiak egiteko ia 120.000 euro inbertitu beharko ditu Udalak. Aurreikuspenen arabera, bi hilabetez jardungo dute lanean.



Santa Ageda jaiak Gesalibar auzoan

Atzo, eguna, hasi ziren Gesalibarko jaiak. Baina asteburuan ere izango da zer aukeratu. Hala, gaur, bertso afaria egingo dute Lizaso eta Egaña bertsolariek girotuta eta Txinparta taldeak alaituta. Bihar, 11:00etan, umeendako jolasak eta lantegiak izango dira, 12:00etan, meza hildako auzotarren alde eta eguerdian hasitako, auzotarrek etxez etxe koplak kantatuko dituzte. Gero, ilun-keran, afaria egingo dute elkartean eta 00:00etan, rock kontzertu mundiala iragarri dute. Bukatzeko, domekan, 12:00etan, meza esango dute, auzoko eta Garagartzako abesbatzek lagunduta.



Eguaztenean batzarra egin zuten langileek enpresako zuzendaritzarekin, baina ez zuten ezer fortu.

U.M.

ENPRESAK/ Utillajes Uribesalgoren Arrasateko lantegia itxi egingo dute

Arrasateko produkzioa Gasteizera eraman gura dute

UBANE MADERA

Utillajes Uribesalgo lantegiko langileek salatu gura dute San Andresko lantegiko zuzendari-tzak iruzur egin diela. Izan ere iaz lanean aurrera egiteko plana aurkeztu ostean, orain, enpresak jakinarazi die Arrasateko lantegiko produkzioa Gasteizera eramango dutela.

ELA eta LAB sindikatuek bidalitako prentsa ohar baten bitartez egin dituzte salaketak Utillajes Uribesalgoko langileek. Zera diote: iaz enpresak bideragarritasun plana aurkeztu zitelako Arrasateko lantegiak aurrera egin

zezan. Plan horren arabera, langile kopuruaren %30 murriztu beharra zegoen (24 langile). Bestela, Arrasateko lantegia itxi egingo zuten. Horren aurrean, langileek onartu egin zuten bideragarritasun plana. Baina, langileek gaineratutakoaren arabera, orain, Uribesalgoko jakinarazi diete Arrasateko lantegia ixteko asmoa dutela.

Horren guztiaren aurrean, langileen galdera da ea zergatik itxi behar duten Arrasateko lantegia, orain arte, milioika euroko irabaziak izan baditu.

Horrekin batera, bazkide gutxi batzuek irabazi handiak

lortzeagatik langileen eskubideak ez errespetatzea salatzen dute.

ENPRESAREN IKUSPUNTUA

Bere aldetik, Utillajes Uribesalgoko kudeatzaile Jon Gorosarrrik Arrasate Irratiari azaldutakoaren arabera, asmoa da hiru urteren buruan Arrasateko lantegiko produkzioa Gasteizko lantegira eramatea. Baina, esan zuen hori egiteko ez dituztela langile guztiak kanporatuko. Hori bai, errelebo kontratuarekin dauden 11 laguni kontratua ez luzatzeko eskubidea badutela ere esan zuen eta beste 9 lagunekin tratua egingo dute la haiek aurre erretiroa hartzeko.



'Rosiren kioskoak' txoko berria dauka

Orain dela 27 urte garabi batek Bilbotik ekarri zuen eta Biterin utzi. Harrezkero ezer gutxi aldatu da Balantzategitarren kioskoan.

Orain arte, izan ere, joan den martitzenaz geroztik, leku berria estreinatu dute *Rosiren kioskoak*: Biteri etorbidea. Lehengoarengandik gertu dago, baina aldaketa dezente igartzen da.

Ikusgarria izan zen leku aldaketa. Garabiarekin ezin, eta patinekin eraman zuten kioskoa leku berrira.

Bestalde, kioskoak txikia dirudien arren, barrukoa gordetzeko hiru auto erabili behar izan zituzten. /U.M.

Espainiari ezetz esateko ekitaldia antolatu dute

U.M.

Etzi, domeka, ezker abertzaleak antolatutako ekitaldia izango da Uarkape pilotalekuan. 18:30ean hasiko da eta parte-hartze jendetsua izango duen ekitaldia izango dela iragarri dute.

Prentsaurreko baten bitartez iragarri zuten domekako ekitaldia. Enrike Letona preso ohiak irakurri zuen oharrak zera dio, besteak beste: "Herri honen gehien-goia autodeterminazioa eta alda-

keta politikoaren alde dago. Erasoetatik babestuko gaituen aldaketa politikoa behar dugu. Espainiak guretzat suposatzen duen guztiari ezetz esateko unea izatea nahi dugu eta horren inguruan milaka herritar biltzeko gaitasuna badugula erakusteko". Horixe izango da domekako ekitaldiko funtsa. Ekitaldirako honako leloa aukeratu dute: *Euskal Herria aitortu/errespetatu*. Besteak beste, iragarri dute Espainiaren aurkako salaketak jasoko dituztela, gero Nazio Batuen Erakundean aurkezteko.



U.M.

Frankismoan fusilatutakoaren aldeko monumentuaren aurrean izan zen prentsaurrekoa.

LABUR

Udaletxea handitzeko lanak esleitu dituzte; horetarako, etxebizitza bat egokituko dute

Construcciones Aikia enpresari esleitu dizkiote udaletxea handitzeko lanen beste zati bat: udaletxearen ondoan dagoen Iturriotz kaleko etxebizitza bat egokitzea, bulegotarako. Ia 90.000 euroko aurrekontua dute horretarako, eta sei hilabeteko epea.

Bizkaiko Kale Saltzaileen Elkarteak alegazioak aurkeztu dizkio Udalaren erabaki bati

Bizkaiko elkartearen esanetan, kale saltzaileei, kalean saltzeko baimenarengatik 90 euro kobratzea fidantza moduan, ez da bidezkoa. Eta horren kontrako alegazioak aurkeztu dituzte. Udalak onartu egin ditu alegazio horiek eta kendu egin du fidantza eskaera.

Enpresen Laguntzen Programan 2003an aurkeztutako eskaerei erantzun die Udalak

2003ko edizioan 12 eskaera jaso zituen Udalak Enpresen Laguntzen Programarako. Egin beharreko azterketak egin ostean, hiru iri izan ezik, gainerako guztiei laguntza ematea onartu du oraingo astean Tokiko Gobernu Batzarrek.

Makatzena berriro urbanizatzeko proiektuari aurkeztutako alegazioei erantzuna

Makina bat alegazio aurkeztu zuten Makatzena auzoko zenbait auzotarrek eta hango alkatetzak, auzoan egin beharreko lanen proiektua dela-eta. Udalak oraingo astean kaleratu du haiei emandako erantzunak. Hala, alegazio batzuk onartu egin dituzte; esaterako, aparkaleku gehiago egitea eta eskudela aldatzea.

DOMEKAN, GIRO EDERRA IZAN ZEN MEATZERREKAKO JAIETAN

S an Baleixo jaietz gozatzeko domeka izan zen egun aproposena, sekulako eguraldia egin zuen-eta. Hala ere, zapatuan gura beste ekintza antolatu zituzten. Egubakoitzean hasi zituzten jaiak. Hasteko, auzo afaria egin zuten, dantza saio eta guzti, gainera. Zapatu arratsaldean umeen txanda izan zen, eurendako hainbat ekintza prestatu zituzten-eta: jolasak, Gorritiren animaliak... Esan barik doa pottoket sekulako arrakasta izan zutela, argazkia ikusi besterik ez dago. Meatzerreka auzoko jaietara hurbildu ziren gaztetxoek ez zuten bakerik eman, pottoken gainean itzuli bat eman arte ez, behintzat. Zapatu arratsaldean, baina, nagusiek ere izan zuten zerekin entretenitu, auzoko elkarteetan mus txapelketa jokatu zuten-eta. Txapelketa horretan, auzotarrez gain Arrasateko hainbat muslari ere izan ziren. Gauean, erromeria izan zen Anaiak taldearen eskutik. Egun polita, baina, domekan izan zen. Eguraldiak lagunduta, txistulariek eta Lore Gazteak taldekoek ikuskizun polita eskaini zuten.



GAZTEAK ETA NAGUSIAK SANTA AGEDA BEZPERAN KANTUAN

E guaztena San Ageda bezpera izan zen. Herriko ikastetxeetako haurrek ez zuten aukera galdu, eta, makila eskuan, ezdarriak lehertu artean ibili ziren kantuan. Nagusiak ez ziren gutxiago izan: parrokiako korukoak, Goikobalukoak eta beste barik kanturako zaletasuna dutenak hara eta hona ibili ziren-eta. Musakolarako bidea hartu zuten batzuek, eta Bedoñarako bidea beste batzuek. Bedoñatik jaitsi eta eskolako neska-mutikoekin elkartu ziren. Eguerdi partean udaletxean elkartu ziren guztiak eta Garagartzarako bidea hartu zuten.



HERRIKO GAZTEAK JO ETA SU IBILI DIRA GAZTE ASTEAN

Egubakoitzean hasi zuten Arrasateko Gazteen Kontseilukoek Gazte Astea. Eta hasiera indartsua izan zuen, Fermin Muguruzak, Angerrek eta Iraina taldeek kontzertua eskaini zuten-eta. Zapatuan, tortilla lehiaketa, bertso triki-poteoa eta tortilla dastatzea izan zen. Domekan ere egon zen zerekin gozatu, puzgarriez, tailerrez eta Detraka taldearen eskutik kale antzerkiaz gozatu ahal izan genuen-eta. Astelehenean, astea ondo hasteko, herriko gazteek grafitiak egiteko aukera izan zuten Herriko Plazan. Martitzenean, Aratustek gainean ditugula-eta, Gazte Kontseilukoek makillaje artistikoko erakustalditxoak jarri zuten Harresi aretoan. Argazki erakusketa ere martitzenean jarri behar zuten, baina atzeratu egin behar izan zuten. Eguaztenean, Arrasateko auzoetan haur eta gazteek panelak margotu zituzten, eskuekin, baina. Eta, eguenean, Oihulari Clown-en eskutik *Recoloclon* antzezlanaz gozatu ahal izan genuen. Gaur amaituko da Gazte Astea. Ondo amaituko dute: txistorra eta sagardo dastatzea, kalejira...





OIAIA MONDRAGON

Leizaran mendean hartzeko, Mondragoeko taldeak nahikoa izan zuen azkar jokatzearekin.

ESKUBALOIA

AGRk martxoan hasiko du Euskadiko Txapelketarako igoera fasea

Arrasateko taldeak erraz irabazi zion Leizarani, ligako azken norgehiagokan (31-21)

XABIER URZELAI

AGR Arrasatek hamar goleko aldearekin irabazi zion domekan Leizarani (31-21). Kontrario makala izan zuten Pitxi Herreroren mutilek, sailkapenean azken postuan dagoen taldea, hain zuzen ere; eta berehala igarri zen hori.

Joan den astean Urolaren kontra galdu izana lehenbailehen ahaztu gura izan dute AGRko mutilek, eta hori ahazteko ez dago erraz irabaztea modukorik. Oraingoan Leizarani egokitu zaio Arrasatekoen haserrea baretzea, eta bisita-

riek aukera gutxi izan zuten domekan Iturripen, bat bera ere ez esatearren.

AGR Arrasatek bigarren postuan amaitu du ligako lehen fasea, Urolaren atzetik. Lehenak izan ez badira ere, Zumarraga eta Urretxukoekin batera izango dira Euskadiko Txapelketarako igoera fasean.

SALSA TXIKIKO PARTIDUA

Domekako norgehiagokan, Leizaran ez zen kontrario izan. Hori dela-eta, salsa txikiko norgehiagoka izan zen. Andoaingo taldeak ordurako maila galduta zekana, eta zazpi jokalarik baino ez

ziren etorri. Jokalari askorekin etorrita ere talde makala bada, atarra kontuak zazpi jokalarirekin zer egiteko gauza izan ziren.

Norgehiagoka irabazteko Arrasatek nahikoa izan zuen azkar jokatzearekin. Jokoari abiadura emanda kontrarioa aurre egin ezinda ibili zen. Horrela jokatzeagatik, baina, arrasatearrek baloi asko galdu zituen erasoan, eta defentsa lanetan aurrekoetan baino hobeto ibili baziren ere, oraindik badute zer hobetu.

Arrasateko taldeak hilabete izango du entrenatu eta jokoa hobetzeko, igoera fasea martxoan hasiko dute-eta.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

- Aloña Taberna - Abokajarro 8-2
- Saukelu Scream - Alpagat-Estutu! 5-3
- AT Celaya - You Know! 11-1
- Rayo Aldeano - Bikain Akademia 3-4

B MULTZOA

- AC Surcos - Dribling 5-6
- Lasagabaster - El Ekipo A 6-2
- Speed Boys - Fuxion 2-3
- Tomahawk - Goma-2 5-5
- Errasti Kristal. - Dream Team 8-8

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. You Know	14	10
2. Iriztu Taberna	14	9
3. Betraye	14	9
4. Aloña Taberna	12	9
5. Abokajarro	12	9
6. Rayo Aldeano	12	10
7. Saukelu Scream	12	9
8. AT Celaya	9	9
9. Alpagat-Estutu!!!	9	9
10. Bikain Akademia	6	9
11. Billy & The Cowboys	4	10
12. KPPC	2	9
13. Koka Juniors	0	9

PARTIDUAK

OTSAILAK 7, ZAPATUA. EPAILEAK

- 10:50: Speed Boys - Etxerat. **Aloña Tab.**
- 12:00: Aloña Tab. - Iriztu Tab. **Speed Boys**
- 13:00: Tomahawk - Dream Team. **Iriztu Tab.**
- 14:00: AT Celaya - Rayo Aldeano. **Dream T.**
- 15:00: Dribling - Fuxion. **AT Celaya**
- 16:00: Betraye - Abokajarro. **Dribling**
- 17:00: AC Surcos - El Ekipo A. **Betraye**

OTSAILAK 8, DOMEKA

- 12:00: Saukelu Scre. - Billy & The... **Goma-2**
- 13:00: Lasagabaster - Goma-2. **Saukelu 5.**

Deskantsua: You Know!, Bikain Akademia, Errasti Kristaldegia, Alpagat-Estutu!

B MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	18	10
2. Dribling	18	10
3. Lasagabaster	13	10
4. AC Surcos	12	10
5. Goma-2	12	10
6. Tomahawk	11	10
7. Dream Team	9	10
8. Fuxion	9	10
9. Speed Boys	8	10
10. El Ekipo A.	5	10
11. Errasti Kristaldegia	5	10
12. Whiskeria	0	10

B MULTZOAN, JARDUNALDI ERABAKIGARRIA

ZORTZIGARREN POSTUAGATIK LEHIAN

B multzoan, oraingo asteburuan jokatuko dute lehenengoko faseko azken norgehiagoka. Hamar zeingehiagoka jokatuko eta gero, Dream Team, Fuxion eta Speed Boys taldeek oraingo asteburuan erabakiko dute aurrera egingo duten edo ez.

Speed Boys taldeak Etxerat-en kontra jokatuko du zapatu goizean. Etxerat-ek ez du ezer jokoan, dagoeneko sailkatuta dagoelako, baina lehenengo postuari eutsi gura izango dio. Gainera, Speed Boys-ekoek irabazita ere, beste bi taldeek zer egiten dutenaren zain egin beharko dute, Fuxion-ek eta Dream Team-ek abantaila daukatelako. 13:00etan jokatuko dute Tomahawk-ek eta Dream Team-ek. Puntu bateko aldeagatik bada ere, Tomahawk dagoeneko sailkatuta dago; segurunez, Dream Team-ekoak motibatuago kantxaratu dira. Fuxionek Dribling izango dute aurrez aurre, kontrario gogorra hori ere.

XAKEA

Arrasatek galdu egin zuen Grosen kontra (1,5-2,5)

Arrasateko Xake Taldeak Groseko bigarren taldearen kontra galdu zuen (1,5-2,5). Arrasateko taldekoak ondo hasi ziren: Josu Tornayk erraz irabazi zion Julian Gallego nazioarteko maisuari. Martin Arriaranek berdinketa lortu zuen, eta emaitza horiekin bazirudien etxe-koak erraz nagusituko zirela. Txema Hernandok, baina, nahiz eta aldea izan, jokaldi txar bat egin eta galdu egin zuen. Azkenik, Isidro Ruizek berdintzeko aukerak zituen ere gaizki jokatuko, eta partida galdu zuen. Arrasate seigarren postuan dago.

ATLETISMOA

Arrasateko atletak Zornotzan izango dira asteburuan

Oraingo asteburuan, Arrasateko atletak Zornotzan korrituko den Euskadiko Kros Txapelketan izango dira. Kadete mailan Markel Blancok hartuko du esku -joan den astean Durangon lehena izan zen- eta beteranotan Javier Mendtxaka, Cesar Diez, Mari Fran Alonso eta Mari Jose Gil izango dira. Horrez gain, beste atleta batzuk Anoetan izango dira bihar, euren markak hobetzeko asmoz: Jonathan Perez eta Lander Errasti pertika-jauzian eta Jonander Amado, Iñaki Etxagibel, Imanol Ezperesate eta Ander Perez arineketan.

MENDIZEHARKO ESKIA

Isa Casado hirugarrena izan zen Gavarnien

Joan den asteburuan hasi zuen Isa Casadok Mendizeharko Eskiko Euskadiko Kopa; eta ondo hasi du, gainera. Mondragoetarra hirugarrena izan zen Gavarnien proban, eta Euskadiko Kopan bigarrena. Zapatuan eguraldi txarra egin zuen, eta ibilbidea moldatu egin behar izan zuten. Domekan, baina, eguzkia lagun, aurreikusita zegoen ibilbideari egin zioten aurre. Hurrengo proba otsailaren 15ean izango du, Formigalen. Espainiako Txapelketako proba izango da, eta Isaren esanetan, maila handiko atletek hartuko dute esku.

KIROLAGENDA

FUTBOLA

- Hondarribia-Mondra**
Preferentea. Zapatuan. 16:30. Hondarribian.
- Dunboa Eguzki - Mondra**
Ohor. Gazteak. Domekan. 10:15. Irunen.
- Arrasate - Santo Tomas Lizeoa C**
Big. Gazteak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.
- Arrasate - Zumaiako**
Ohor. Kadeteak. Domekan. 10:00. Atxabalpen.
- Arrasate B - Oiartzun**
Big. Kadeteak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
- Arrasate - Santo Tomas Lizeoa**
Infantilak. Domekan. 12:15. Atxabalpen.
- Mondra - Elgoibar**
Neskak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.

ESKUBALOIA

- Arrasate - Donibane Majestic**
Udaberri Txap. Domekan. 11:30. Iturripen.

Arrasate C - Hondarribia

- Udaberri Txap. Zapatuan. 18:00. Musakolan.
- Gatz Museoa Jakion - Bergara**
Gazteak. Zapatuan. 16:30. Musakolan.
- Arrasate Amaña - Urnietako**
Kadeteak Neskak. Zapatuan. 16:30. Ipuruan.

SASKIBALOIA

- Ointxe Arrasate - Gasnalsa**
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
- Arrasate - Bergara**
Juniorrak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

Zarautz B - Arrasate

- Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Antonianosen.

ERRUGBIA

- Arrasate - Atletico San Sebastian**
Gazteak. Zapatuan. 18:00. Garagartzan.
- Ordizia - Arrasate**
Kadeteak. Zapatuan. 11:30. Eibarren.

FUTBOLA

Azkeneko bi partiduak galduta, goialdean jarraitzeko puntu beharrean dago Mondra

Joan den zapatuan, Touring-ek gauzak errazago egin, eta 2-4 irabazi zuen Atxabalpen; sailkapenean bosgarren lekuan dago Arrasateko taldea

XABIER URZELAI

Sailkapeneko lehenengo postuei heltzeko aukera paregabea galdu zuen zapatuan Mondrak. Touring hobeto moldatu zen Atxabalpeko zelaiaren egoera kaskarrera, eta Arrasatekoak konturatu zirenerako Touring 0-2 zen aurretik.

Ulertzeko zaila bada ere, Atxabalpeko zelaia egoera txarrean zegoen zapatu arratsaldean. Eta, ulertzeko zaila diogu, futbol zelai horretan hamabostean behin bakarrik jokatzen dutelako. Ez da, baina, norgehiagoka galtzeko aitzakia, Touring-ek ere zelai berean jokatu zuen-eta.

GOL AUKERAK BAI, BAINA GOLIK EZ

Lehenengo zatia nahasia izan zen, joko aldetik tratatua. Touring-ek erraz jokatu zuen, gauzak zaildu barik. Arrasateko taldeak hainbat gol aukera izan zituen, bai lehenengo zatian eta baita bigarrenean ere; baina, zapatuan

Touring-en atezainak maila ona erakutsi zuen, geldiketa erabakigarriak egin zituen-eta.

Mondrak barkatu egin zuen erasoan, eta defentsa lanetan makal ibili zen. Lehenengo golean Touring-eko aurrelaria Calvoren aurrean geratu zen bakar-bakarrik, eta bigarren gola eskuin hegalean baloia lapurtuta egin zuten. Mondrak baino gehiago egin barik, kanpotarrak 0-2 ziren aurretik.

BIGARREN ZATIAN, BERDIN


Bigarren zatian gauzak ez ziren larregi aldatu. Mondrak gol aukera garbiak izan zituen, eta horrelako jokaldi baten egin zuen Inak 1-2koa. Bazirudien Arrasatekoak berdintzeko gai zirela, baina Touring-ek hirugarrena egin zuen kórner bati esker. Laugarren golean argi geratu zen ez zela Arrasatekoen eguna. Calvori baloiak ihes egin, hankan jo eta Touring-eko aurrelariak 1-4koa egin zuen. Muruak egin zuen 2-4koa, baina ordurako berandu zen, beranduegi.



Oraingo asteburuan zortzigarren postuan dagoen Hondarribiaren kontra jokatuko du Mondrak.

OLAIA MONDRAGON

FOTOKIROLA



Arrasateko gimnastak ondo Gipuzkoako A mailako txapelketan

Joan den zapatuan, eskola arteko A mailako gimnasia erritmikoko txapelketako lehenengo fasea jokatu zuten, Uarkapen. Infantil, alebin, kadete eta gazte mailako gimnastak izan ziren. Bi saio egin zituzten: goizean gaztetxoak ibili ziren; arratsaldean, berriz, gazte mailako txanda izan zen. Gipuzkoa osotik etorritako gimnastak izan ziren Uarkapen; 70 guztira. Arrasatek izan zuen ordezkariarik; sei gaztetxo hauek, hain zuzen: Saioa Arriola lehena izan zen infantil mailan; Mireia Rodriguez hirugarrena; Leire Poyato laugarrena; eta Jone Goikolea bosgarrena. Kadeteetan, berriz, bakarkako modalitatean Marta Etxeberria laugarren postuan sailkatu zen eta Naiara Zabarte seigarrena izan zen. Emaitza onak lortu zituzten Arrasateko gimnastek. /X.U.

Lautik lau: Ointxe Arrasate ondo baino hobeto dabil

X.U.

Ointxe Arrasate Saskibaloitza Taldeak jaitziera fasean jokatu dituen lau partiduak irabazi ditu. Lan ona egiten dabil Gorka Zurutuzaren mutilak, eta dagoeneko harrapatu dute sailkapeneko liderra.

Ointxe Arrasate bigarren postuan dago, Viajes Marfil taldearekin berdinduta. Jaitziera fasean egiten dabilen lan onari esker lortu du Arrasateko taldeak sailkapenean goialdean egotea. Joan den astean, Barakaldoko Paules Carrefour taldeak ezin izan zuen Ointxe mendean hartu, nahiz eta Barakaldon jokatu.

ETXEAN ETA ETXETIK KANPO

Ointxe Arrasate Iturripen eta Iturripetik kanpo irabazten dakiela erakutsi du. Eta, kontrario gogorren kontra, gainera. Paules Carfourrek eta Ointxek norgehiagoka gogorra jokatu zuten. Arrasate aurretik izan zen markagailuan, deskantsura arte bai, behintzat (41-41). Epaileak gaizki ibili ziren, lehenengo bi laurdenetan batez ere. Kasualitatez, Ointxekoen kontra hartu zituzten erabaki gehienak.

Norgehiagoka amaitzeko bost minuturen faltan, epaileek

momentu hartan Arrasateko jokalaririk erabakigarriena zena kanporatu egin zuten: Gorka Kintana. Orduan, baina, Gamarrak hartu zuen taldea aurrera eramateko ardura, eta hiruko bi saskiratze eginda (lehen bederatzi metrotatik), norgehiagoka erabakita utzi zuen (81-86).

PARTIDU IKUSGARRIA ITURRIPEN

Oraingo asteburuan norgehiagoka ikusgarria jokatuko dute Iturripen Ointxe Arrasatek eta Gasnalsa talde gasteiztarrek. Ointxek bosgarren garaipena eskuratzea du helburu, baina talde sendoa izango du aurrean. Gasnalsa talde arabarra TAU Baskoniaren filiala da, eta, besteak beste, Stephan Ivanovicek eta Asier Arzallusek jokatzen dute bertan.

Stephan Ivanovic Dusko Ivanovic TAU Baskoniako entrenatzailearen semea da. Asier Arzallus, berriz, 2,05 metro neurtzen duen gazte leitzarra da. Bi jokalaririk dagoeneko jokatu dute TAU Baskoniarekin, Euroligan, batez ere. Argi dago, beraz, bihar 18:00etan Ointxe Arrasatek eta Gasnalsa talde gasteiztarrek Iturripen jokatuko duten partidua erakargarria izango dela. Erakargarria izateko osagarri asko ditu, behintzat.



Lore

Olarte 10. Tel: 943 79 52 50
ARRASATE



Maitatzea
duzun guztia
ematea da

Amagara

Erdiko kale 54 behea. Tel: 943 79 09 09
ARRASATE



"Edertasuna opari
egitea maitasuna
opari egitea da"

Angela

Ferrerias 35. Tel: 943 79 88 23
ARRASATE



ELKORO

Elkoro Expert

Olarte 20. Tel: 943 77 08 28
ARRASATE





Bea

Otalora 21. Tel: 943 79 12 05
ARRASATE



Etzera eramango
diogu, egun berezia
izateagatik
18:00etara arte.

Mayte

Otalora 18. Tel: 943 77 14 65
ARRASATE



Hika

Olarte 2. Tel: 943 79 98 06
ARRASATE

en 14a

Solentin
na

Jose Davilak irabazi du Al Andalusen II. Cante Flamenko Txapelketa

IKER BARANDIARAN

Joan den zapatuan, urtarrilaren 30ean, jokatu zuten Al Andalusen II. Cante Flamenko Txapelketa. Amaia Udal Antzokia lepo bete zuten, eta lehia handia izan zen, finalak iraun zuen hiru ordu eta erdian.

Al Andalus elkarteko kideak oso pozik daude. Izan ere, joan den zapatuan, Amaia Udal Antzokia leporaino bete zuten. Kordobatik, Badajoztik, Jaendik, Almeriatik eta Malagatik etorritako sei abeslarik lehia handia izan zuten, eta arrasatearrek ez zuten ikuskitzen horretan huts egin gura izan. Antzokia lepo betetzeaz gainera, hainbat lagun kalean gelditu ziren, lekurik ez zegoelako.

Finala 19:00etan hasi zen. Al Andalus elkarteko Sueños de Andalucía taldeak dantza ikuskitzen laborra eskaini zuen. Horren ostean, sei abeslariak esku hartu zuten, banan-banan. Abeslari guztiek gitarra jotzaile bera izan zuten lagun: Santanderko Alejandro Martin, hain zuzen ere. Guztira, denon artean, 22 kantu abestu zituzten.

23:30ean bukatu zuten parte-hartzaileek abesten. Horren ostean, epaimahaiaren erabakia jakitea falta zen, eta ikusleak ez ziren jarlekuetatik zutitu. Epaimahaiari denbora emateko, Sueños de Andalucía taldeak beste dantza ikuskitzen labor bat egin zuen.

IKUSLEEK IZUGARRIZKO JAKIN-MINA

Cante Flamenko Txapelketaren antolatzaile Enrique Perezen esanetan, finalisten arteko lehia oso gogorra izan zen. Azkenean, epaimahaiak honako erabakia hartu zuen: Jose Davilak (Quintana de la Serena) 1.000 euro eta gitarra

CANTE FLAMENCO ARRASATE - MONDRAGÓN



OLAIJA MONDRAGON

Seguruenik, 2004ko bukaera III. Cante Flamenko Txapelketa antolatuko dute.

eta Portaloia batzen dituen trofeo dotorea jaso zituen. Bigarren saria Montse Perezek (Almeria) jaso zuen, eta 700 euro eraman zituen. Hirugarren postua eskuratzeko oso parekatuta egon ziren Mari Jose Perez (Almeria) eta Bartolome de Haro (Linares). Azkenean, bakoitzari 400 euro eman zizkioten.

Horiez gain, beste bi sari banatu zituzten: batetik, EAEko partaide onenaren saria Bilboko Paco

Carrionek jaso zuen, eta 300 euro eman zizkioten. Bestetik, joan eta etorriko cante onenaren saria Jose Davilak eskuratu zuen, eta 300 euro eraman zituen.

Ikusleek gogoz txalotu zituzten abeslariak, eta ekitaldian oso giro ona izan zen. Are gehiago, behin finala bukatu ostean, antolatzaileak, parte-hartzaileetako batzuk eta hainbat lagun Al Andalus elkartera joan ziren canteekin jarraitzera.

Euskaldun berriak ohartarazi gura ditu Zahar Berri taldeak

I.B.

Zahar Berri elkarteak euskaldun berriak euskara praktikatzeke erraztasunak izan ditzaten lan egiten du. Aspaldian, *Jarrerak aldatuz* kanpainarekin buru-belarri dabil, eta horma-irudiak atera ditu.

2001ean, Zahar Berri elkarteak hausnarketa egin zuen herriko euskaltegiak ikasleekin. Hausnarketa horretatik honako ondorioa atera zuten: euskaldun zaharren zenbait jarrerak euskaldun berriei min egiten dietela. Eta are gehiago, batzuetan euskaldun berriak euskaraz berba egiteko motibazioa galarazten dietela.

Arazo horri aurre egiteko, *Jarrerak aldatuz* kanpaina abiarazi zuten. Helburua zen euskal-

dun zaharrek, ohartu barik, euskaldun berriekiko dituzten jarrerak aldatzea. Esate baterako, batzuetan euskaldun berriari euskaraz berba egiten saiatuz gero, barre egiten diote, eta gaztelera aldatzeko eskatzen diote. Zahar Berriek ekidin egin gura ditu jarrera horiek, edo, gutxienez euskaldun zaharrek ohartarazi.

KOMUNIKABIDEAK ETA ESKU-ORRIAK

Iaz, komunikabideetan eman zuten kanpaina horren berri. Aurten, komikiak dituzten horma-irudiak atera dituzte. Bi motak atera dituzte: batetik, lan esparruaren gaineko komikiak, Euskalanekin batera; eta bestetik, saltokien gainekoak. Bakoitzeko 300 horma-irudi atera dituzte, eta dagoeneko hasi dira lan-toki eta saltokietan banatzen.



Komikiak argi eta garbi erakusten dituzte euskaldun zaharren jarrera desegokiak.

'Master and commander' eta 'Elephant' filmak emango dituzte, Amaia antzokian

I.B.

Azkeneko asteotan arrasatearrek ondo erantzun diote Amaia Udal Antzokiko film eskaintzari. Hala ere, www.goiena.net webgunean lagun askok idatzi dute: gurago dute zinekluba eguenetan beharrean egubakoitzean ematea.

Gaur, egubakoitza, zineklubean, *Noviembre* filma emango dute. Acheru Mañas zuzendariak egin duen bigarren lan luzea da, eta gidoia ere berak idatzi du. Zuzendari horrek bere lehenengo filmarekin, *El Bola*-rekin, arrakasta handia izan zuen. Kalean antzezlanak eskaintzen dituzten iraultzaile batzuen isto-

ria kontakutako digu Acherok film iraultzaile horretan. 100 minutu irauten du.

Zapatuan ez dute filmik emango, Musikene orkestrak kontzertua egingo duelako.

Domekan, bestalde, bi film emango dituzte: batetik, 17:00etan, *Looney tunes, de nuevo en acción* umeendako filma; eta bestetik, 19:00etan eta 22:00etan, *Master and commander* nagusiendako. Azken asteotan, ume eta gaztetxo asko joan dira filmak ikustera. Esaterako, *Buscando a Nemo* eman zutenean, Amaia Udal Antzokia ia bete egin zuen.

Looney Tunes animazioko filma da eta Joe Dante estatubatuarra da zuzendaria. Joe Dantek ibilbide luzea dauka, eta, besteak

beste, *Gremlins* filmaren egile ere bada. Filmak 90 minutu irauten du. Bugs Bunny eta Lucas ahatea haserretu egingo dira, eta Lucasek Warner Bros. estudioetik alde egingo du. Horretan datza film horretako istorioa.

ITSASOKO ABENTURAK

Domekan eta astelehenean, *Master and commander* filma emango dute. Zuzendaria Peter Weir da, eta honako aktoreek esku hartu dute, besteak beste: Russel Crowe, Paul Bettany eta James D'Arcik. Filmak 138 minutu irauten du.

Master and commander abenturazko filma da, eta oso harrera ona izan du. XIX. mende hasieran, Jack Aubrey itsas kapitainak Britainia Handiaren alde borroka-

tzen dihardu. Frantziako gerrako itsasontzi bat harrapatzeko, ibilbide luzea egin beharko du, eta bidaia horretan hainbat abentura bizi beharko dituzte, hala nola: ekaitzak, izozmendiak, altxamenduak, eta abar.

Datorren egubakoitzean, otsailaren 13an, zineklubean, *Elephant* filma emango dute, 20:30ean. Film hori AEBetako Columbine institutuan ikasle batzuek egingo dako triskantzaren gainekoa da. Are gehiago, AEBetako hainbat institututako ikasleak dira protagonista. Ez zeukaten gidoi finkorik, eta, batez ere, inprobisatu egiten dute. Gus Van Sant da zuzendaria, eta hark ibilbide luzea dauka: *Drugstore cowboy*, *El indomitable Will Hunting*, eta abar.

LABUR

Torpedolevel taldeak 'Ya te digo' lana antzeztuko du

Gaur, egubakoitza, Torpedolevel antzerki taldeak *Ya te digo* lana eskainiko du Arrasateko Aterpe tabernan, 00:00etan. Torpedolevel taldea Madrilgoa da eta bi lagunek osatzen dute: Vene Herterok eta Carmen Pardok. Lehen arrasatearra da, baina aspalditik Madril bizi da.

Ya te digo euren bigarren lana da. Aurretik, Arrasaten, *Las chicas serias no gustan* lana eskaini dute. Esketx komikoak lotuko dituzte eta ordubete inguruko lana egingo dute. Honako gaien gainean berba egingo dute: ohea, sexua, gastronomia, maitasuna eta abar...

E, TXO!

GAZTE ASTEAREN AZKENEKO EKITALDIAK

Gaur, egubakoitza, bukatuko da Gazte Astea. Horretarako, jai berezia antolatu dute Herriko Plazan. 17:00etan, astean auzoetan margotutako horma-irudiekin erakus-keta egingo dute. 17:30ean, txistorra eta sagardoa banatuko dituzte. Eta bukatzeko, 19:00etan, Getariako perkusio bandarekin kalejira egingo dute. Aste dotorea Arrasateko Gazte Kontseiluak antolatu duena!

LUDOTEKA IBILTARIA MUSAKOLAN

Otsaileko lau zapatuetan (7an, 14an, 21ean eta 28an), Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria antolatu du Musakolako eraikinean (San Antolinen). 11:00etatik 13:30era izango da, eta gura duten 3 urtetik 12 urte bitarteko guztiek esku hartu ahal izango dute.

OKENDOKO LUDOTEKAREN MATRIKULA PREZIO ERDIAN

Txatxilipurdik kudeatzen ditu herriko bi ludotekak, eta aditzera eman digu Okendoko ludotekaren matrikula prezio erdian dagoela, hau da, urteko 20 eurotan. Santa Marinako ludotekaren matrikula, berriz, ez da prezioz aldatu; 10 eurokoa da.

VITAL KUTXAK ANTOLATUTA, ARGAZKI LEHIAKETA

Vital Kutxa Fundazioak VII. Argazki Lehiaketa antolatu du. Gaia librea izango da, eta argazkiak koloreetan edo zuri-beltzean aurkeztu ahal izango dira. Egile bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Maiatzaren 31ra arte dago lanak aurkezteko epea zabalik.

Informazio gehiago nahi izanez gero, honako telefono zenbakira dei dezakezue: 945 16 21 57.

GUREGAIK/ GAZTEEN INFORMAZIO RAKO BULETIN ELEKTRONIKOA

Gazteen gaineko informazio lokala eta orokorra Interneten

IKER BARANDIARAN

Gazte Bulegoak, Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuarekin batera, beste ekimen bat jarri du abian: Gazte Bulegoan batzen den informazio interesgarriena zabaltzea posta elektronikoen bitartez.

Gipuzkoako hainbat informazio bulegok Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera sortu dute Gazte Informaziorako buletin elektronikoa. Honako herrietako gazte informazio bulegoek egin dute bat ekimen horretan: Astigarra, Azkoitia, Azpeitia, Donostia, Hondarribia, Irun, Legazpi eta Arrasatekoak, hain zuzen ere.

Ekimen horren helburua da gazte informazio bulegoetan eta Aldundiko Gazteria Zerbitzuan lantzen duten informazioa bulegoetatik kanpo zabaltzea, eta mezu elektronikoen bidez informazioa eskura jartzea.


Buletinak bi atal nagusi ditu: informazio lokala eta informazio orokorra. Batetik, Arrasateko moduko bulegoetatik lantzen

Harpidetza Interneten egin daiteke, doan, eta egubakoitzero informazioa jaso

duten informazio lokala: ikastaroak, kultura ekintzak, lehiaketak, ikastaroak... Eta bestetik, Foru Aldundiak atal orokorra landuko du, informazio orokoragoarekin: bulegoan jasotzen dituzten dosierriak: bekak, oposaketak, lehiaketak, ikastaroak eta beste batzuk.

INFORMAZIOA JASOTZEKO HARPIDETZA

Harpidetza egiteko eta, bide batez, informazio hori jasotzeko, www.gipuzkoa.net/gazteria web orriko *Gazte Informazioa* atalean egin daiteke, edo, bestela, zuzenean gazte informazio bulegoren batera jo eta datuak eman.



www.gipuzkoa.net/gazteria web orrian egin daiteke harpide.

Harpidetza egiterakoan (doanekoa da), zein herritako buletina jaso gura den aukeratu beharko da. Horren ondoren, interesatuari mezu bat idatziko diote, eskaera berresteko. Eta, hori berretsiz gero, egubakoitzero

jasoko du aldizkaria posta helbidean. Harpidetza egiteko bigarren bidea da Arrasateko Gazte Bulegora zuzentzea (943 77 00 65) edo posta elektronikoen bidez egi-[te \(gaztebulegoa@arrasate-mon-dragon.net\)](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mon-dragon.net).

Bihar, zapatua, Musikene Orkestrak kontzertua egingo du Amaia antzokian

I.B.

Bihar, zapatua, Donostiako Musikene Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du Amaia antzokian, 20:00etan. Musikene Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikastegia da, eta hango ikasleek hartuko dute parte.

Bihar, zapatua, Musikene Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian, 20:00etan. Sarrera 3 euro kostatuko da, eta Amaian erosi ahal izango da. Orkestra sinfoniko

hori eskola horretako 65 ikasleek osatzen dute. Besteak beste, Amaia antzokian honako instrumentuen doinuak entzungo dira: lehen biolinak, bigarren biolinak, biolak, biolontxeloak, kontrabaxuak, flautak, oboeak, klarineteak, fagotak, tronpak, tronpetak, tinbalak, perkusioa, zelesta eta arpa.

Esku hartuko duten musikari guztiak Musikene ikastegiko ikasleak dira, eta batez besteko adina 20 urte da. Izan ere, orkestran jotzea ikastegi horretako ikasgaietako bat da.

Emanaldiak ordu eta laurden iraungo du, eta, besteak beste, honako piezak eskainiko dituzte: Maurice Ravelen *Ma mère l'oye*, Camille Saint-Saënsen *Biolontxelo eta Orkestrarako lehenengo kontzertua*, eta Ludwig Van Beethovenen *Zortzigarren sinfonia*.

PUNTA-PUNTAKO MUSIKARI GAZTEAK

Ikastegi hori 2001-2002 ikasturtean estreinatu zuten, eta Orkestra Sinfonikoa ere urte berean sortu zuten. Musikari gazteak diren arren, eskola handia dute,

eta urtean hainbat kontzertu egingo dituzte. Musikene ikastegian eman dituztenez gain, Donostiatik kanpo ere hainbat emanaldi egin dituzte: besteak beste, Gasteizen, Gernikan eta Donostian.

John Dubuclet tronboi jotzailea izan da moldaketak egin dituen. Dubuclet kaliforniarra da eta ibilbide luzea dauka musikagintzan. New Hampshireko Unibertsitatean, musikan *cum laude* graduatu zen, orkestra askotan esku hartu du eta egun Musikeneko irakaslea da.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

OKIPARK
Urtebetetzeko ospakizunak eta kafetegia
Amillaga 1 Bergara
Tel.: 943 76 94 52

BEHEKODENDATIK

Enric Rodriguez Marin

MONDRAGON HOTELEKUE

XABIER URZELAI

Oin dala hiru urte etorri zan Enric Mondraguera, eta denpora hori daroie Mondragon hotela dirigiduten. Kataluñan jaixotakue, Milanen eta Londresen bizi izen da. Gustora dauela esaten dau; hirixek ofreziduten dauen gauza batzuk igerten dittu faltan, baiñe hamen bizi izetiek be alde onak ei dauko.

Ze eskaketan dutzezu 2004ei?

Osasune, azkenaldixen flojo samar nabil-eta.

Eta, juen barri dan urtietei ze faltau izen jako?

Esan doten moduen, osasune.

Ze falta jako Mondragueri?

Zerbitzu gehixau. Herri izaerie euki gure dau, baiñe hiri baten botere ekonomikue dauko eta ez dau hori asumidu gure.

Eta, ze dauko ona?

Bertako jentie; tratue askoz be jatorraue da, gertukue.

Ze falta jatzu zeuri?

Inguruen ekitaldi kultural gehixau eukittie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Kiluek.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Mi vida sin mi / Las cosas que amé / Operie gustetan jat.

Nora juengo zitzake gustora?

Oin, Erromara. Bizi izeteko hiri ederrena da.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Hautsa kentzie.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeñekin?

Ez neuke holakorik egingo.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Klientie.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Kulturien gaiñeko gauza gehixau: kritikak, kronikak... Arlo horretan motz ikusten dot.

Aste bukaera pasetako leku on bat?

L'Ampurda, Gironan. Leku edarra da benetan.

Hotelien noix eukitten dozue



"Gure geuke inguruko turismue bultzaketako ekimen gehixau egotie, baiñe..."

lan haundixen?

Duda barik, astien zisher, enpresetako kliente asko eukitten dittugu-eta.

Enpresetako jentiez aparte, ze kliente klase eukitten dozue?

Penie da, baiñe ez da etorten turista askorik. Familixa kontuek diela-eta, Mondraguera etorten dien kanpotarrak eukitten dittugu: bodak diela, komunixuek diela... Bestela, lan kontuengaittik etorten da jentie hona.

Abuztuen trankil ibilliko zarie, ala?

Bai. Gure geuke inguruko turismue bultzaketako ekimen gehixau egotie, baiñe...

Ze zerbitzu ofreziduten dozue

"Campsakuek etorri zienien inpresiño ona hartu euen, logela haundixek daukogu-eta"

Mondragon hotelien?

Hotel batek ofreziduten dittue-nak: kafeterixie, jatetxie, batzarrak egitteko lekue, lo egitteko aukerie...

Mondragon hotelak ze dauko ona?

Alde batetik, lekue. Herri erdialdien dau, eta hori eskertzekue da. Horretaz aparte, aspaldiko edifizie da, edifizio elegantie, eta ondo barrittute dau. Campsakuek etorri zienien inpresiño ona hartu euen, bestiek beste, logela haundixek daukogu-eta.

Pertsona ezagunik etorri da hona?

Norbait esatiarren, Maria Teresa Campos.

NIREBIDAIAHURA/ Jaime Epelde

Vietnamera / 2003ko urrian

Joan den astean, Vietnamgo iparraldean utzi genien Jaime eta lagunak. Iparraldeko kostaldea ezagutu eta gero, barrualdera egin zuten berriro eremendi aldera joateko asmoz: "Moto batzuk alokatzea erabaki genuen, eta motoak alokatzen zituenari gidari moduan etorriko ote zen galdetu genion. Hiru moto alokatuta abiatu ginen mendialdera. Bidean, baina, polizia kontrolgune baten alto eman ziguten: "Motoan ibiltzeko gidabaimenik ez geneukalako dirua eskatu ziguten. Diru hori ez zen isuna ordaintzeko, eurendako zen. Ordaindu eta gero, diru gehiago eskatu ziguten. Harrituta geratu ginen: "Ordaindu ez dugu ba!". Kontua da motoak alokatu zizkigun gidariak ere ez zeukala motoan ibiltzeko gidabaimenik".

Iparraldean hamar egun inguru egin eta gero, Jaimek eta lagunek hegoalderako bidea hartu zuten. "Vietnamen hara eta hona ibiltzeko trena da garraibide aproposena. Gauez bidaiatzen genuen, eta trenean egiten genuen lo". Thua Thien Hue-ra joan ziren, eta handik Hoi-An-erako bidea hartu zuten: "Hoi-An faltsutzearen hiria da. Markako trajeak neurrirra egiten zituzten, eta kirol arropak ere merke-merke zeuden. Nik markadun motxila bat erosi nuen, sei euro ordainduta. Eta badirudi ez dela kalitate txarrekoa".

Vietnamen gauza askok harritu zuten Jaime: "Horrelako lurraldeek usain berezia izaten dute, eta Vietnamen ez nuen horrelakorik sumatu. Senegalen izan nintzenean, aireportutik jaitsi eta berehala igarri nuen lurralde hartako usaina, usain berezia izaten da. Vietnamen ez nuen horrelakorik igarri, eta horrek harritu ninduen".

Hegoalderako bidean zirela, telebistan ikusi zuten euren bidean zegoen herrialde baten uholdeak izan zirela. "Beldur apur batekin joan ginen hara, zer aurkituko genuen jakin barik. Iritsi ginenean, baina, uholdearena igarri ere ez zen egiten". Datorren astean jarraituko dugu Vietnamgo hegoalderako bidean, Jaimek lagunduta.

XABIER URZELAI



Vietnamgo gaztetxo koadrila bat.




Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARRAREN ETXETIK



AINTZANE GARDOKI

Ordenagailuekin eta Interneten ibiltzeko ohitura areagotuz doa nagusien artean.

Geroago eta erretiratu gehiago ibiltzen dira Interneten

IKER BARANDIARAN

Gaur egungo gizartearen ordenagailuekin eta Interneten ibiltzeko ohitura handia dago. Gazte-gaztetatik, neska-mutikoei ordenagailuekin zelan funtzionatzeko duten ikasten dute; eta are gehiago, berehala, horietako asko teknologia berri horien zale ere bilakatzen dira.

Neska-mutiko horiek baino nagusiagoak garenok ere hala-beharrez ordenagailuekin ibiltzen ikasi behar izan dugu. Gu baino nagusiagoak direnei, berriz, ordenagailuak eta Internet arrotzagoak egingo zaizkie.

Hala ere, horietako askok ez dute atzean gelditu gura izan, eta euren kabuz ikasi dute. Horrez gain, ibarreko herri guztietan ipini dituzten KZguneen bitartez, beste askok ikasteko aukera izan dute. Mesede handia egin die zerbitzu horrek askori.

Bestalde, ezagun da euskal gizartea zahartzen doala; hau da, jaiotzen den baino lagun kopuru handiagoa hiltzen dela. Horrekin batera, osasun-sanitatea garrantzuz joan den heinean, bizi-itxaropena asko luzatu da. Horregatik guztiagatik, biztanleriaren zati handi bat hirugarren adinekoa da. Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten enpresek -Interne-

tekoak barne- interesa dute gizartearen esparru horri zuzendu eta, posible bada, horiei zerbitzuak eskaintzeko.

INTERNET, HIRUGARREN ADINERAKO

Interneten ibiliz gero, ohartuko gara hirugarren adinari zuzendutako edo adin esparru horren gaineko webgune mordoak daudela. Batetik, aisialdirako denbora luzea daukan giza taldea delako, eta horregatik zerbitzu asko eskaini gura dietelako; bestetik, Interneten ibiltzeko denbora luzea dutelako; eta azkenik,

hirugarren adineko hainbat lagunek zaintza berezia behar dutelako, eta horren gaineko merkatu handia dago. Horregatik guztiagatik eta beste arrazoibatuengatik, euren gaineko webgune mordoak daude sarean.

OSO ESKAINTZA ZABALA

Interneten hirugarren adinaren gainean aurki daitezkeen webgune gehienak osasunaren, gaitasunaren eta zaintzaren gainekoak dira. Baina hirugarren adinekoei osasun arazoak eta mendekotasunak ez diren beste gauza asko ere interesatzen zaie, zalantza barik.

Horiez gain, bainuetxeen gaineko informazio zabala dago sarean, baina badaude beste asko ere bai: esaterako, liburuen, bidaien, musikaren, kirolen, kulturaren eta bestelako gainekoak, hain zuzen ere.

Horiekin batera, izen bitxia duten webgune interesgarriak aurkitu ditugu: *La tercera edad no es la vencida*-El portal de la tercera edad; *Jubilatas.com*; *Los mayores.com*; *Jubilonautas*; *La agenda de los mayores*; *Jubilo interactiva*; eta abar.

Zaharrekin lotutako topikoez gain, besteak beste, harremanak sendotzeko eta aisialdi denborari etekin handiagoa ateratzeko aukerak ematen dituzte.

Euskarazko webguneak

Hirugarren adinarekin zuzenki lotutako euskarazko webguneak ere aurkitu ditugu: *eurobizkaia.net*-en edadetuen gaineko elkartearen informazioa jaso dugu; *gizalde.com*-en edadetuek Hirugarren Munduari lagundu gura diote; *Gizartekintzaren atarian* ere bada informazioa, baita *hiru.com*-en ere. *Consumer.es* aldizkaria aproposa da.

LABUR

Uribarri elkartearen mendekotasuna duten lagunak zaintzearen gaineko berbaldia

Eguenean, otsailaren 12an, mendekotasuna duten lagunak zaintzearen gaineko ikastaroa egingo dute Uribarri erretiratuen elkartearen. Berbaldi hori Kutzaren eta Gipuzkoako Erizainen Eskolaren laguntzarekin antolatu dute. Hizlariak mendekotasuna duten lagunak hobeto zaintzeko eta zaintzailearen beraren onurarako hainbat aholku garrantzitsu emango ditu. 17:00etan izango da.

Herriko erretiratuak dagoeneko hasi dira Aratusteetarako mozorroak prestatzen

Otsailaren 24an, Aratusteetan, Uribarri erretiratuen elkarteak txokolata-jana eta dantzaldia antolatu ditu. 18:00etan izango da, eta bazkide guztiek esku hartu ahal izango dute.

Horrez gain, Iturbide egoitzan mozorroak egiten dabilta eskulanetan. Eta otsailaren 24an, mozorroak jantzi eta dantzaldia egingo dute, Quintanilla musikariaren laguntzarekin. Ospakizun jaia 17:00etan izango da.

Dolara baserriko Andresa Egidazuk 100 urte bete ditu

Udalako Dolara baserriko Andresa Egidazuk 100 urte bete zituen urtarrilaren 26an. Egidazu aspalditik -orain dela ia 80 urte- Errenterian bizi da, baina jaiotzez Udako Dolara baserrikoa da. Esan beharra dago haren anaia Patxi Egidazuk 102 urte dituela. Badi-rudi osasun oneko familia dela Udako Egidazu.

Bitxikeria moduan, Andresa Egidazuk ohitura du urtebetetzea otsailaren 2an ospatzeko, Kandelario egunean. Urte askoan hala egin zuen, eta orain dela urte gutxi haren senideak ohar-tu ziren Andresa urtarrilaren 26an jaio zela, eta 27an bataiatu zutela Udako San Esteban eli-

zan. Orduetik hona, bi egunetan ospatzen du urtebetetzea: Kandelario egunean eta urtarrilaren 26an, hain zuzen ere.

Andresa Egidazu 1929ko urtarrilaren 31n ezkondu zen Jose Luis Gorostola debarrarekin, Udako elizan. Ordurako, Errenterian bizi zen emakumea. Nera-bezaroan joan zen Udalatik, etxe baten zerbitzatzeko, eta han ezagutu zuen senarra. Senarra hil egin zen, baina Andresa osasuntsu dago eta Errenterian bizi da oraindik.

Joan den asteburuan Dolara baserrira etortzeko zen Andresa, anaia Patxi agurtzera, baina ezin izan dugu ziurtatu.



INIGO ARIZMENDI

Udalako Dolara baserriko alaba Andresa Egidazu Errenterian bizi da aspaldian.



ARRASATE
Eneko Carrero
Otsailaren 4an, 1 urte.
Zorionak! Juanan, Nani eta familiakoak.



ARRASATE
Haritz Cortes
Urtarrilaren 31n, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Igor Sala
Otsailaren 4an, 26 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Mikel Castillo
Otsailaren 5ean, 27 urte.
Zorionak, Mikel!
Lehengusuak.



ARAMAIO
Uxue Errasti
Otsailaren 5ean, 3 urte
bete zituen. Zorionak!
Etxekoan partetik.



ARAMAIO
Julen Errasti
Otsailaren 22an, 3 urte
beteko ditu. Zorionak!
Etxekoan partetik.



ARRASATE
Juan Mari Garai
Otsailaren 8an,
urtebetetzea. Zorionak!
Etxekoak.



ARRASATE
Nerea Kerejeta
Otsailaren 9an, 26 urte.
Zorionak, *tortolita!*
Koadrilakoak.



ARRASATE
Naiara Canelo
Otsailaren 9an, 5 urte.
Zorionak! Familiakoan
partetik.



ARRASATE
Naia Ijurra
Otsailaren 8an, 3 urte.
Zorionak! Familiakoan
partetik.



ARRASATE
Esti Iturbe
Otsailaren 10ean, 6 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
ahizpa Miren.



ARRASATE
Oier Arzamendi
Otsailaren 5ean, 28 urte.
Zorionak! La Peña de la
Greña.



ARRASATE
Marije Salterain
Otsailaren 6an,
urtebetetzea. Zorionak!
Maitale ezkutua. R.P.



ARRASATE
Sara Larrabe
Otsailaren 8an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
Garbiñe.



ARRASATE
Amaia Galdos
Otsailaren 2an, 27 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Izaskun Ezpeleta
Otsailaren 4an,
urtebetetzea. Zorionak!
Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein da antzinako argazki horretan ikusten duzuen musika taldea?
Arrastoa: Arrasatetik Donostiara dauden kilometroak adierazten du izenak.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Colon detergentea
36 ontzitxo + % 15 doan

0,35€ 58 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA LUISA ORUNArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Luisa!
Galderen erantzun zuzena:
La Rotonda eraikina.

ARRASATEKOHISTORIA

Maisu Guridi musikariaren omenezko kalearen gainekoa

'MONDRAGON SUS CALLES' / J. LETONA

Zeharkako kaleetako bat da San Andres auzoan. Hain zuzen ere, Jesus Guridi Badiola musikariaren omenez ipini zioten izena.

Jesus Guridi Badiola: konpositorea eta organo jotzailea izan zen. Gasteizen jaio zen 1886an eta Madrilen hil zen 1961ean. Umetatik izan zuen harremana musikarekin, familiakoak ere musikariak ziren-eta. Bost urte zituenerako, Jesus Guridik bazituen buruan musikarekin lotutako ideiak eta asmoak. Gasteiztik Zaragozara joan zen Guridiren familia, eta Zaragozatik Madrilera. Ordurako, 11 urte zituen Jesus Guridik, eta makinatxo bat konposizio, argitaratu barikoak. Bilbora joan ziren Madrilatik. Hantxe eman zuen aurreneko kontzertua. Sekulako arrakasta izan zuen, eta errepikatu egin behar izan zuen; eta beste kontzertu bat eman zuen Donostian.

1901ean, 14 urterekin, Lore Jokoetan irabazi egin zuen. 1904an, Parisera joan zen, eta handik Bruselara. Ikasten jarraitu zuen, eta konposatzen. Beste zenbait lekutan ibili eta

Jesus Guridik umetatik izan zuen harremana musikarekin, familiari esker

Hamaika urte bete zituenerako, makina bat konposizio zituen, baina, argitaratu barikoak

gero, 22 urterekin musika ikasketak bukatu zituen. Hala, Bilbora itzuli zen.

1910ean, *Mirentxu* argitaratu zuen, eta hamar urte geroago, *Amaya*. Bi horien ostean etorri ziren *El Caserío*, *Misa de Requiem*, *La cautiva*... 1940an, Madrilera joan zen, eta Kontserbatorioko katedradun plaza eskuratu zuen bost urte geroago. 1957ra arte makina



UBANE MADERA

San Andres auzoan, zeharkako kaleetako bati Maisu Guridi izena ipini zioten, musikagilearen omenez.

bat sari eman zizkioten; tartean, kontserbatorioko zuzendari eta Bilboko Seme Kutun izendatu zuten.

Guridik harreman estua izan zuen Arrasaterekin. Izan

ere, *Mirentxu* eta *El Caserío* zarzuelak interpretatu zituzten hemen. Eta *El Caserío* zartzuaren kasuan, Guridi bera ibili zen zuzendari lanetan. Gasteizera ere eraman zuten lan hori,

eta Guridiren aurrean interpretatu zuten.

Bestalde, Guridik berak aitortu zuen aitaita arrasatearra zuela, Munar baserrikoa. 1972an bota zuten baserri hura.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / otsailaren 6a / 95. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


Gazte lokalak martxorako zabaldu nahi dituzte berriro ere

UBANE MADERA

Gazteen eta Udalaren artean adostasunik lortu ez dutelako erabaki du orain Udalak gazte lokalak erabili gura dutenendako zerrenda zabaltzea. Hala jakinarazi digu Mertxe Mondragon alkateak. Otsailaren 27a baino lehen eman behar dira izenak udaletxean.

Udaleko ordezkariak argi dute zeintzuk diren gazte lokaletan bete beharreko baldintzak: erabiltzaileen adin-muga 20 urtera artekoa izatea eta gauean, 01:00etan ixtea lokalok. Baldintza horiek betez gero, gazte lokalak erabiltzea libre izango da. Hori horrela, joan den astean zerrenda bat zabaldu zuten udaletxean, gazte lokalak erabili gura duten izenak emateko.

Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digunez, asmoa da behin izen guztiak batuta gazte kopuruaren arabera antolatzea gazte lokalen erabilera. Hau da, gelak zela banatu, egin beharreko aldaketak zela egin... Izan ere, besteak beste, gelak margotu egin behar dira, zenbait gauza atara eta sarrailak konpondu. Eta, behin hori guztiori eginda, Aramaio Udalaren helburua da



Zabaldu baino lehen konponketa lanak egin behar dituzte gazte lokaletan.

martxorako berriro ere zabaltzea gazte lokalok.

ERANTZUNIK EZ

Alkateak adierazi digu gazteen izandako azkeneko batzarraren ez zutela adostasunik lortu, baina Udaleko ordezkariak ahalegina egin zutela. Izan ere, gazte lokalok erabiltzeko adin-muga 18 urtetan ezarri zuten Uda-

lak hasieran, eta gazteen eskaerak entzun eta gero 20 urtera zabaldu zuten. Hala ere, gazteek ez zuten onartu. Gauzak horrela, nahi zutenei sartzeko aukera eskaini zien Udalak, baina ez zuten erantzunik jaso. Horregatik erabaki dute deialdi publikoa egitea.

Orain, gazteen erantzunaren zain daude udaletxean.

LABUR

Babes ofizialeko etxebizitzendako urbanizazio lanak egiten hasiko dira

Laster lanak egiten hasiko dira Pedro Ignacio Barrutia kalean San Martin eskolatik gertu dagoen zelai batean. Urbanizazio lanak egingo dituzte; hain zuzen ere, etorkizunean han eraikitzea ko asmoa dagoen babes ofizialeko etxebizitzaren urbanizazio lanak.

Amenabar enpresak egingo ditu lanok. Oro har, azpiegiturak eta sartzeko egokitzapen lanak izango dira: ur eta saneamenduko hodiak, argindarra eta telefono harria... Halako lanak egiteko lan zati handia mugitu behar da; hain zuzen ere, Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digu gutxi gorabehera 10.000 m² mugitu behar dutela, eta akaso horrek arazoak sortuko dituela. Lehen esandako moduan, leku hartan babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dituzte gero, baina etxe horien proiektua oraindik onartu barik dago. Batzarra egin behar dute Udalak eta Jaurerriak xehetasunak zehazteko.

Nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa hasiko da laster kultura etxean

Udalak jakinarazi digunez, nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa antolatu dute otsailerako eta martxorako. Ikastaroa Aramaion izango da. Hain zuzen ere, otsailaren 21ean hasi eta martxoaren 27an bukatuko da. Eskolak honako egunetan izango dira: otsailaren 21ean eta 28an eta martxoaren 6an, 13an eta 27an (zapatuetan, hain justu). Goizez izango dira, 09:00etan hasi eta 13:00ak arte, kultura etxean.

Edozeinek parte har dezake. Hala, interesa dutenek datorren otsailaren 13a baino lehen eman behar dute izena. Horretarako, Zuiako koadrilak Murgian duen bulegora joan beharra dago (Udaletxe plaza 1-2. ezkerrean); edo honako telefonora deitu: 945 01 01 67. Ikastaroa dohainik izango da, baina adi ibiltzea komeni da, pertsona kopuru mugatua onartuko dute-eta.

Zuiako koadrilaren, Arkauteko Nekazaritza Eskolaren eta Mendikoi elkartearen artean antolatu dute ekimena, Aramaio Udalaren eta Europako Gizarte Funtzaren dirulaguntza jaso dute.

Aramaioko eta inguruotako asto zaharrena akabatu egin da

U.M.

Akabatu egin da Aramaio eta inguruotako asto zaharrena: Erdaideko *Putxiko*. Albaitariak berak ere ez daki seguru, baina 34-35 bat urte hartu dituela uste dute. Hori oso berezia da asto batendako, asko jota 24 bat urte hartzen dituzte-eta. Akaso leku onean bizi zelako bizi izan da horrenbeste.

Putxiko astoa Aramaion bizi izateaz gain, haren ama ere aramaioarra zen: Ibabe baserriko *Massiel*. Hala esaten zioten astoari, *Massiel* abeslariak *Eurovision*

irabazi zuen sasoi hartan Ibabe-ko astoak asto-lehiaketa ugari irabazi zituen-eta.

Halako batean, Ibabe baserrikoek Artikilokoei saldu zieten *Massiel*, eta hantxe, Artikilon, jaio zen gure *Putxiko*. Noiz? Ba inork ez daki seguru esaten. Dakitena zera da: *Putxiko*-k Artikilon hiru kume egin zituela, eta Franco hil zenean, Bergarako baserri batean haren kume bat jan zutela, ospatzeko. Atera kontuak *Putxiko*-k zenbat urte zituen!


ARTIKILOTIK ERDAIDERA

Azken 25 urteotan Barajuengo Erdaide baserrian bizi izan da.

Baserriko lana egiteko erosi zutela kontatu digu Lourdes Gardoki Erdaidekoak. Eta gero, orain dela 11-12 bat urte, ganadua saldu zutenean, astoa *biba la vida* ibili zela Erdaideko zelaietan. Hango amamak, behintzat, ondo asko zaintzen zuen astoa!

ERAKUNDE PUBLIKOAK

Baina zaharra zen oso. Eta zahartzaroak ez du barkatzen. Gaixotu zenean, albaitariari deitu zioten, baina dagoeneko ez zegoen zer egin. Edozelan ere, bizi izandakoa ondo gozatuko zuen asto horrek, horrenbeste urtean bizi irauteko.



Lehiaketa ugari irabazitako *Massiel* astoaren kumea zen *Putxiko*.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	19:30
19:00	19:15	
21:00	21:25	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAKO TALDEEN EMAITZAK

Oraingoan ere ez da posible izan. Neskek 15-0 galdu zuten Jesus Obrero taldearen kontra joan den asteburuan. Hori bai, esan beharra dago neskek jokatzeko duten mailan adin askotako jokalariek dabiltzala, eta Jesus Obrero taldearen kasuan, aramaiorak baino nagusiagoak zirela. Jakina, hori gero igarri egiten da jokatzeko orduan. Gainera, oraingo asteburuan ere arazo bera izango dute, neskek Ekialderen kontra jokatu beharko dute-eta. Partidua 11:30ean izango da, Aramaion. Mutilek, berriz, azkenaldiko emaitza onekin segitzen dute. Hala, joan den asteburuan, 4-0 irabazi zioten Lan eta Jolas taldeari. Bihar, berriz, kanpoan jokatu dute Instituto Los Herran taldearen kontra, 11:00etan.

ZINEMA

Oraingo domekan, *Final fantasy, la fuerza interior* filma emango dute Aramaion. Antolatzaileek kontatu digutenez, marrazki bizidun modernoekin egindako filma da, 3-Dn egindakoak.

Eguaztenean umeak irten ziren kantuan; bihar abesbatza irtengo da

UBANE MADERA

Goizean goiz hasi eta herri osoan zehar ibili ziren umeak Santa Agedaren omenezko koplak kantatzen. Bizente Goikoetxea abesbatza bihar, zapatua, irtengo da kantura.

Taldeka banatu eta San Martin Eskolako neska-mutikoak Aramaion barrena ibili ziren eguaztenean, Santa Ageda bezperan. Guztira, 108 gaztetxo, baserriar jantziekin eta makilekin. Hala, 3 eta 4 urteko umeak kalean ibili ziren eta 5 urtekoak kaletik geratu dauden auzoetan (Arraga, Eguzkierripa...). Nagusiagoek, berriz, auzo-baserriari bisita egin zieten. Guztiak ere goizean goiz irten ziren ibilbidea egiteko.

BATUTAKOAREKIN ZER?

Halakoetan ohi denez, denetarik batu zuten umeek: jakiak zein dirua. Hala, gero, batutako jakiak eskolan jango dituzte, jolas-orduetan (intxaurrak, urrak, txorizokak...). Eta diruari dagokionez, urtero moduan eskolak dituen beharretarako eta ekimenak egi-



Zabola auzoan eta inguruan lehenengo eta bigarren mailako ikasleak ibili ziren, eta denetik batu zuten baserrietan.

teko erabiliko dute; umeendako izaten da, azken batean.

BIZENTE GOIKOETXEA ABESBATZA

Bestalde, Bizente Goikoetxea abesbatza ere eguaztenean irtekeoa zen, baina, azken orduko

ezusteak eraginda, erabaki zuten bihar, zapatua, irtengo direla kantuan. 14:00etan da hitzordua, eliza aurrean. Hala, lehenengo ohiturak gordetzeko ahaleginean parte hartu nahi duten edozein gonbidatzen dute ekimenean par-

te hartzera; gainera, bide batez, Aramaioko txoko asko ezagutzeko aukera ederra dela ere nabarmentzen dute. Gero, batutako janariarekin afaria egingo dute. Eta dirua beharra duten herritarrei laguntzeko emango dute.

BOTEPRONTOAN/ Miguel Santiago Etxeberria · Eskultorea

“Aramaion egon ziren olen erreferentzia moduan egin nuen ‘Korapiloak’ izeneko eskultura”

Dagoeneko hasi dira Bañera parkean ipini behar duten eskultura ipintzeko lanak egiten. *Korapiloak* du izena eskultura horrek eta Miguel Etxeberria beasaingarrak egindakoa da. Caja Vitalek antolatutako lehiaketa bateko irabazlea izan zen lan hori:

Zelatan aurkeztu zinen lehiaketan?

Oraingoa dela urte batzuk hasi nintzen eskultura lantzen. Nire lanbidearekin (hargintza) tartekatzen dut. Hala, modu horretako aukeraren bat sortzen denean parte hartzen ahalegintzen naiz.

Aramaion ipiniko duzun eskultura noiz egin zenuen? Zelakoa da?

Bereziki lehiaketarako egin nuen pieza hori, Aramaion ipintzeko. Altzairu berezi batekin eginda dago, kanpoaldeetan ipintzeko egokia. Kanpoko aldean geruza bat dauka, herdoildutakoa, eta horrek barruko aldea babesten du, ez herdoiltzeko. Kontua da burdin arruntarekin eginez gero margotu egin behar izaten dela, eta gero hori zaindu egin behar dela.

Zelako tamaina dauka? Bi elementu dira: modulu

bikoitz bat eta beste bakar bat. Modulu bikoitza bi metro eta erdi zabal da eta metro pasatxoa altu. Altuagoa baino zabalagoa da. Beste pieza, berriz, apurtxo bat estuagoa da. Gauza da kanpoaldeetan-eta ipintzeko, eskulturak normalean handiagoak izaten direla. Hala, bi piezak errekararen albo batean ipiniko dira, eta bestea beste aldean. Kuboak modukoak dira.

Zein izan da zure inspirazio iturria?

Antzina Aramaion olak egon ziren. Horri erreferentzia egiteko erabili dut altzairua. Gero, oletan ura ere erabiltzen dela-eta horregatik erabaki dugu errekan ipintzea.

Hortaz, zeuk aukeratu duzu lekua?

Bai. Hasierako planteamendua zen Bañeran ipintzea, baina,

arbola artean, berdegunean. Eta niri iruditu zitzaidan interesgarriagoa erreka ondoan ipintzea.

Korapiloak deitzen da zure lana; zergatik?

Bat egiten duten hiru elementuz osatutako eskultura da. Eskulturaren zati batean zuloa dago; hala, zulo horretan sartuko litzateke beste zatia. Gainera, piezak errekararen albo banatan daude eta erditik ura pasatzen da, albo bietan dituen piezei forma ematen ibiliko balitz-bezala. Zelanbait oletako prozesuaren adierazgarri.

Eskultura ikustera joango direnei zer esango zenieke?

Ez dela horren zaila ulertzeko. Neu ere xume samarra egiten ahalegindu nintzen, jendeak ulertzeko.

Eskultura ipintzeko ekitaldi berezirik egitea pentsatu

duzue? Alkateak esan zidan seguru aski zerbait egingo zela, baina ez dago ezer zehaztuta.

Bestelako lanak ere izango dituzu eginda; posible da nonbait ikustea?

Eduki izan dut, baina orain, erakusketa gutxiago egiten ditut. Batez ere lehiaketetan-eta parte hartzen dut. Apurka-apurka egiten ditut lanak.

Baina norbaitek nahiko balu zuri lanen bat eskatu?

Posible da bai, enkarguak hartzen ditut.

Bereziki zein material erabiltzen duzu?

Harria. Eskulturgintza ikasten hasi nintzenean, 1980an, lantegi alternatibo batean hasi nintzen (oraingo berean), eta, han harriarekin lan egiten zuten, neu ere hala hasi nintzen.

“Altzairu berezi batekin eginda dago, herdoildutako geruza batekin, barrua babesteko”

“Eskultura xume samarra egiten ahalegindu nintzen, jendeak uler dezan”

“Lantegi alternatibo batean ikasi nuen eskulturgintza, 1980an; harria lantzen hasi nintzen”

ERRETRATUZAHARRA

Santa Ageda eskean Kataide baserrian

Santa Ageda eskean ateratzeko garaia izan dugu oraingo astean. Eta ohiturari kale egin barik, makina bat kantari ibili da baserriz baserri, antzina moduan.

Geuk, oraingo honetan, 60ko hamarkadara jo dugu, Santa Ageda eskean ateratzen zen beste talde bat erakusteko. Gure berriemaileak kontatu digu zela San Frantziskon abesbatza bat sortu zen Serafin Abaitua frantziskotarraren gidaritzapean. Horixe da, hain zuzen ere, argazkiko taldea.

Baserriz baserri ibiltzen zen eskean, eta batutakoa ospitalerako izaten zen, mojudako. Normalean dirua ematen zieten baserritarrek, baina zenbait lekutan jakiak ere ematen zizkieten, txerrikiak, gehienetan. Haiak ere mojudako izaten ziren. Edozelan ere, eskean ateratzen zen taldeak ere aprobeztatzen zuen zertxobait ondo irabazitako afaria egiteko. Bitxikeria moduan, Bedoñan ba omen zegoen baserri bat urtero-urtero txerri-burua gordetzen zutela kantariei emateko.



Honako hauek agertzen dira argazkian, behean ezkerretik hasita: Norberto Mondragon, Adolfo Madina-beitia, Candi Artola, Jose Antonio Balerdi, Loiti, Heriberto eta Txintxurreta. Zutik, aurreneko ilaran, ezkerretik hasita: Angel Ezkurra *Galarra* soinu jotzailea, hurrengo Ismael

Errasti dela uste du gure berriemaileak, Eugenio Gallastegi, Javier Zubizarreta, Jose Mari Agirreurreta, Rafael Trincado eta Llodio.

Bestalde, atzeko aldean hiru laguneko taldea dago argazkiaren erdian; emakumea etxeakoandrea da, Bittori Arregi. Haren ezkerrean Javier

Zubillaga dago, eta eskuman Santi Altuna. Eta baserriko posteari eutsita dagoen emakumea Felipa Garro da, Bittoriren laguna.

Argazkia eta informazioa: Espe Lizarralde. Urtea: 1964.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Uribarriko lurrak zaintzen

Uribarriko eliza egin zutenean, 1914an, Arrasateko kaleak urrun geratzen ziren. Gaur egun, elizatxo horrek etxeak eta lantegiak ditu inguruan, eta Garaia proiektuarekin batera eraikin gehiago izango ditu ondoan. Ondoko argazki zaharrean azaltzen den baino itoago dago gaur egun Uribarriko eliza, baina oraindik ere tente dirau eliza txikiak.



≈ 1935 Uribarriko elizaren argazkia lehen ere atera izan dugu. Oraingoa, baina, beste ikuspuntu batetik ateratakoa da.



2004 Uribarriko baratzeak ezagunak ziren, emaitza ederrak ematen zituztelako. Gaur egun, ortuak eraikinei egin diete paso.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Erraziok
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Mercedetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73

ARRASATE

Jose Luis Iñarra pasealekua
posta-e: mercedikas@terra.es

Haur Hezkuntza

0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza

Haur Hezkuntza

2-6 urte



eredua **D**



DBH

2004-2005

Matrikulazio epea zabalik



Ile apaindegi – SPA zentro
berriaren irekiera

*Zerbait ezberdina probatu
nahi baduzu, zatoz buruan
masaje berezia hartzera,
erlaxatzeko teknikarekin.*

Otsailaren 9tik aurrera,
Otalora 14an
Tel.: 943 71 20 15

San Valentín eskaintza: opari berezia egin
Pasa zaitetz edertasun txartel pertsonalizatuaren bila.
Manikura doan: emakumeentzako eta gizonezkoentzako.

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



Loramendi 7, 2-behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza - Bainuak
Gasa - Berogailuak**

Leihoak



ARGI PLASTIK

**PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.**

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora